



Usurbilgo Udala



2014KO IRAILAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.
Josu Portu Alzaga J.
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.
Enara Arbizu Irurtia A.
Iñaki Ugarte Aguirre J.
Eustakio Arrojeria Eguzkiza J.
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.
Miren Josune Urquia Carrera A.
Josune Urkola Larrarte A.
Ricardo Crespo Rubio J.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin A.

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera A.

Ezin-etorria adierazi du: Jose María Rivadeneyra Sicilia Jk.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2014ko irailaren 30ean, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

1.- 2014/04/29KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek gehiengoz onartu dute 2014ko apirilaren 29ko ohiko bilkurako akta, Eustakio Arrojeria, Josune Urkola eta Ricardo Cresporen abstentzioarekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin.



Usurbilgo Udala



Alkateak, Karmele Lizaso kontu-hartzaile berriari ongietorria eman dio eta zinegotziak aurkeztu dizkio.

Bide batez, Amaia Gorrotxategi pertsonalگو eta kontratazio teknikariak bere lanpostuari uko egin diola eta bere ordeз Olatz de Miguel bitarteko funtzionario izendatu dela aipatu du.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2014KO UZTAILAREN 21ETIK IRAILAREN 19RA (2014/0704 – 2014/0886)

Alkatetzak 2014ko uztailaren 21etik irailaren 19ra bitartean (2014/0704-2014/0886) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- UDALBATZARRARI KOMUNIKAZIOA: “2013KO OTSAILAREN 8KO 1/2013 FORU ARAUA, GIPIZKOAKO TOKI ENTITATEEN AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN ALORRETAN FINANTZA TUTORETZAREN ESKUMENA GARATZEN DUENA”, 5.3 ARTIKULUA.

Karmele Lizaso kontu-hartzaileak txostenari buruzko azalpenak eman ditu. Seguruenik ezaguna egingo zaiela gai hau esan du, duela hilabete batzuk udalbatzarrera ekarri baitzen.

Egonkortasun Legea dela-eta, behartuta daudela esan du aurrekontuak onartzerakoan, likidatzean eta baita hauek modifikatzean ere hainbat kontrol egitera. Hiru helburu bete behar direla dio eta, kasu honetan, bat ez denez betetzen horren berri eman behar dela esan du. Gaineratu du Foru Arauak esaten duela kasu konkretu hauetan nahikoa dela berri ematea eta ez dela beharrezkoa planik egitea.

Azaldu du hemen kontrolatzen dena dela diru-sarrerak nahikoak izatea gastuak finantzatzeko, eta nola kasu konkretu honetan diru-zaintzako gerakina erabili den, gastuak handitu egin dira, baina adierazi du diru-zaintzako gerakina ez dela sartzen kalkulu honetan eta horregatik badirudiela diru-sarrerak baino gastu gehiago daudela. Kasu honetan ez dagoela inongo arazorik esan du zeren ez da gastua handitzen doala baizik eta benetan egiten ari direna da aurretik aurreztutako dirua erabiltzen.

Bigarren helburua finantzen iraunkortasuna dela dio. Ohiko eragiketengatik lortutako diru-sarreraren eta zorren arteko erlazio bat gorde behar dela esan du. Gaineratu du zorra gehienez diru-sarreraren %95a izan daitekeela eta udal honen kasuan %20ra ez dela iristen azpimarratu du.

Aurtengo gastuak ez duela izan behar aurreko urtekoa baino %1,5a baino gehiago adierazi du eta udalaren kasuan gutxiago gastatzen ari dela aditzera eman du.



Usurbilgo Udala



Egoera azaldutakoa izanik, aurrera begira udalaren kontuetarako inongo arriskurik ez dakarrela esan du.

Alaitz Aizpuruak adierazi du 2013ko likidazioa egin zenean antzeko kasu bat gertatu zela. Kasu hartan ez zegoela jasota esan du Foru Arauak 2014ri zegokiola eta 2013a ez zuen kontenplazten edo ez zuen bere baitan hartzen, eta horrekin ibili zirela bueltaka esan du.

Kontu-hartzaileak esan du kasu honetan garbi dagoela soilik berri eman behar dela.

Honela dio aipatu txostenak:

“TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

1. 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
2. 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
3. Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko azaroaren 19koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

AZTERTUTAKO TRAMITEA: 2014. urteko aurrekontuaren kreditu aldaketak (5, 6, 7, 8 eta 9 kreditu aldaketak: kreditu transferentziak, kreditu gaikuntza eta kreditu gehigarriak).

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1.1- ENTITATE ZERRENDA: Usurbilgo Udala

1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

2014. urteko aurrekontuaren onarpenaren espedienteak **33.825,89** euroko **defizita** du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk,



Usurbilgo Udala



kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2014rako ezarritako helburua defizit zero izatea da.

Hori dela eta, 2014. urteko aurrekontuaren kreditu aldaketen onarpen espedienteak aurrekontu egonkortasunaren 2014rako helburua **ez du betetzen**.

Finantzen iraunkortasuna

2014ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia (1.744.514,17), guztira, 2013an likidatutako sarrera arrunten (8.831.223,81) **%19,75** izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2013ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2014rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2014rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2014rako ezarritako helburua magnitude hori %95 baino txikiagoa izatea da.

Hori dela eta, 2014. urteko aurrekontuaren kreditu aldaketen onarpen espedienteak finantza iraunkortasunaren helburua **betetzen** du, ez baita aldatzen goian aipatutako %19,75 hori.

Gastuaren araua

2013ko eta 2014ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa **%-8,25** da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	2013ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	9.232.413,32
a2	SEC doiketak	0,00
a3	2013ko interesak	48.786,49
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2013an	604.624,20
a=a1+a2-a3-a4	2013ko gastu konputagarria (aurreikuspena)	8.579.002,63
b1	2014ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	10.448.219,89
b2	SEC doiketak	0,00
b3	2014ko interesak	53.692,72
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2014an	1.124.445,00



Usurbilgo Udala



b5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketen eragina	0
b6	Gastu exekuzioaren doikuntza(IGA Eren 2/2012 legeak 12.artikuluaren araututako gastu erregela ezartzeko gida,1.13 atala)	%85
b=b1+b2-b3-b4-b5-b6	2014ko gastu konputagarria	7.870.928,37
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)	%-8,25

Gastu exekuzioaren doikuntza (IGA Eren 2/2012 legeak 12.artikuluaren araututako gastu erregela ezartzeko gida,1.13 atala)

2011, 2012 eta 2013.urteetako gastu exekuzioaren portzentajeak %81, %78 eta %96 izan dira. Beraz, gastuen eragiketa ez finantzarioen kredituen exekuzioaren portzentaje hauen media aritmetikoa, azkeneko hiru urteko exekuzioak kontutan hartuz %85 a izan da.

Aurreko kalkulua egiteko kontuan hartu dira 1-7 kapituluetakoko gastuen aurrekontuaren aurrekontu aurreikuspenak, eta 1-7 kapituluetakoko gastuen aurrekontuaren obligazio onartuak.

2014rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa %1,5 baino txikiagoa izatea da. Hori dela eta, 2014. urteko aurrekontuaren kreditu aldaketen onarpen espedienteak 2014rako gastuaren araua **betetzen du**.

1.3.- ONDORIOAK

2014. urteko aurrekontuaren kreditu aldaketen onarpen espedienteak betetzen ditu finantza iraunkortasunaren arloan 2014rako ezarritako helburuak eta gastu araua. Aldiz, ez du aurrekontuen egonkortasun helburua betetzen. Hau dela eta, kontuan izan behar ditugu:

-2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena:

5.3 artikulua: "Bestetik, **aurrekontu egonkortasuneko helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordean, entitateko Udalbatzarrari komunikazio bat helaraziko beharko zaio, zirkunstantzia hori adierazita, Kontu-hartzaitzak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera**".



Usurbilgo Udala



-Jarraibidea Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan (2013/11/28ko GAO):

1. erregela: “Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, urtebeteko epean egoera zuzenduko dela bermatuko duena. Hala ere, **helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordeztu, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluaaren hirugarren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari”.**

Gure kasuan, difizita diruzaintzaren gerakinaren erabilpenak sortu du. Orain arte erabilitako kopurua: 391.825,89 € (eta defizita 33.825,89 eurokoa baino ez da). Honen eraginez, gastu erregela kalkulatzeko erabilitako gastu konputagarria handitu egin da, baina diru-sarreretan ez dagokio horrelako gehikuntzarik islatzea (VIII. Kapituluaren jasotzen baita erabilitako diruzaintzako gerakina, baina, gainera, soilik behin betiko aurrekontuan eta inoiz ez onartutako eskubideetan).

Berez, diruzaintzako gerakina Udalak sortutako aurrezkoa izango litzateke, diru-sarreraren eta gastuen arteko diferentzia, sortutako ekitalditik aurrera gastu berriak edo handiagoak finantzatzeko aukera emango duena.

Ondorioz, ezin da defizit estrukturala bezala onartu aurretik lortutako gerakina erabilpena. Hori baino, egokiagoa izango litzateke esatea gerakina likidazioa egiteko momentuan lortutako aurrekontu superabita dela.

Hortaz, aipatutako jarraibidea betetz, txosten hau Udalbatzarrerara bideratzen dut, egoeraren berri eman eta dagozkion ondorioak izan ditzan.”

4.- 2014/0606 DEKRETUA BERRESTEA: DONOSTIAKO ETA USURBILGO UDALEN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA ZUBIETAKO ESKOLA TXIKIA HANDITZEKO ETA BI UDALEN ARTEKO “ZU.03 ZUBIETAKO ZABALPENAREN GAINEAN AKORDIO BAT IRISTEKO OINARRIAK” IZENEKO HITZARMENAREN EGOKITZAPENA.

Alkateak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu.

Zubietako eskola handitzeko eskaera aspaldikoa dela esan du. 2007an prefabrikatu batzuk jarri zirela probisionalki adierazi du, bertan behar zituzten zerbitzuak gehitzeko. 2013an Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak instalazioak handitzeko obrak egiteko baliabideak jartzea adostu zutela adierazi du, kostuak bien artean finantzatu. Bestalde, egin behar den handitze horrek Usurbili ere eragiten diola esan du; lursail horretan %86,40a Donostiako udalarena dela dio eta %13,57a Usurbilgo udalarena, zatiezina dena gainera. Eskola handitzeko egindako proiektuaren zati bat Usurbilgo lurretan dagoela esan du. Hori horrela izanik, Donostia eta Usurbilen artean hitzarmen bat sinatzea planteatu dela adierazi du guzti hau ahalbideratzeko. Esan bezala Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru-laguntzaren bidez



Usurbilgo Udala



egingo dituela obrak esan du eta kontratazio prozedurak ere beraien gain geratzen direla. Halaber, hemendik aurrerako gastuak, mantenua barne, Donostiako Udalaren esku geratzen direla gaineratu du. Usurbilgo Udala, berriz, eman beharreko baimenak ematera konprometitzen dela zehaztu du.

Aurretik bazegoela hitzarmen bat esan du Donostiako eta Usurbilgo Udalen artean sinatutakoa. Bertan esaten omen zen obrak erdibana ordainduko zirela. Oraingo hitzarmenean puntu horretan honako hau gehitzen dela esan du "Hori hala izango da, bi udalok ez badute berariaz erabakitzen beste modu batean finantzatzea", eta hau dela kasua azpimarratu du, izan ere hitzarmen honen bidez Zubietako eskola txikiari dagozkion gastuak Donostiaren baitan geratzen baitira.

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

"Esp. Zenbakia: HZ.02/2014-0243

Usurbilgo Alkate-Lehendakariak 2014ko ekainaren 26an, 2014/0606 zenbakidun dekretuaren bidez zera erabaki zuen hitzez hitz:

MERTXE AIZPURUA ARZALLUS andereak, **USURBILGO UDALEKO ALKATEAK**, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1.985ko Legeko 21.1. atalean xedatutakoaren arabera, honako hau

IKUSIRIK

Espediente zenbakia: HZ.02/2014-0243

Zubietako eskolako eskola komunitatea ikastetxe hori handitzeko eskatzen ari da 2007az geroztik, eta, hori dela eta, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzarekin nahiz Donostiako Udalarekin ere aritu da hizketan.

Gaur egun, eraikin nagusi bat du eskolak, eta han dira erabilerarik garrantzitsuenak (bi ikasgela, sarrera egiten duen beste areto bat, jolas-toki estalia eta psikomotrizitate gela) eta erabilera horiek osatzeko zerbitzuak (komunak, irakasleen bulegoa, zuzendaritzarena, biltegia eta liburategia). 2007-2008 ikasturteetik aurrera, ordea, modulu aurrefabrikatu batzuk jarri beharra izan zen hezkuntzaren eguneroko jardunak behar dituen zerbitzu batzuk emateko. Modulu horiek ez ziren betiko izateko jarri, gauza asko falta eta arazo mordo bat (akustikoak, termikoak, eta abar) dituztelako.

2009ko martxoan, "Zubietako eskola: etorkizun eske" txostena eman zioten Donostiako Udalari, hizpide dugun eskolako Zuzendaritzak eta Gurasoen Elkarteak sinatua. Txosten horretan, eskaintzen den zerbitzuaren kalitate eskasaren berri ematen da, guztia ere eskolak ez duelako nahikoa tokirik eta aurrefabrikatutako modulu batzuen bidez hala moduz moldatu behar dutelako.



Usurbilgo Udala



2013an, Donostiako Udaleko Hezkuntzako zinegotzi eskuordedunak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Lurralde ordezkariak elkarrizketa batzuk izan zituzten hizpide dugun eskolan den arazoaren inguruan, eta instalazio hori handitzeko obra egitea erabaki zuten, kostua bien artean finantzatuta. Eusko Jaurlaritzak ordaindu behar duen partea haren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ateratako 'Udalaguntzak 2013' diru laguntza deialdiari esker izango da.

Horrenbestez, "Zubietako eskola handitzeko obra proiektua" idazteko agindu zion Donostiako Udalak Estudio Urgari SLPri. Hala, proiektu hori idatzita dago eta baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzara bidalita ere. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak lehen esandako diru laguntza emateko ebazpena hartutakoan esleituko dira obrak, eta 2014ko udan egingo dira, eskola umeak oporretan diren bitartean, eskolak emateko endredorik ez izateko.

Handitu behar den eraikin hori "Zubietako Zabalpena ZU.03" alorreko Plan Partzialak zehaztutako lursail batean da, irakaskuntzako ekipamendutarako g.0003 eskola lursailtzat jota dago eta 2583 m2 ditu (ikus honekin batera doan plano). Plan Partzial hori 1998ko abenduaren 15ean onartu zen behin betiko.

Esaten ari garen lursaila den alorraren birpartzelatze proiektua Donostiako Udala eta Usurbilgo Udala, biak, ados zirela onartu zen, hurrenez hurren 2000ko irailaren 12an eta 2000ko urriaren 3an hartutako erabakien bidez. Birpartzelatze proiektu horrek hizpide dugun lursaila Donostiako Udalari eta Usurbilgo Udalari esleitzea aurreikusten du, %86,43 Donostiako Udalari eta %13,57 Usurbilgoari, baina zatitzeko ez den moduan.

Lursaila zatitzerik ez dagoenez, ESTUDIO URGARI SLPk Zubietako eskola handitzeko egindako proiektuaren parte bat Usurbilgo Udalaren %13,57 horretan izango da.

Birpartzelatze proiektu horrekin batera eta/edo hura osatze aldera, dokumentu bat onartu zuten Donostiako Udalak eta Usurbilgo Udalak: Zubietako Zabalpena ZU.03 alorraren gaineko hitzarmenaren oinarriak. Dokumentu hori alor horretan esku hartzeko irizpideak jartzeko sustatu zen, baita lizentziak emateko irizpideak zehazteko ere.

Hala, Donostiako Udalak nahiz Usurbilgo Udalak "Zubietako eskola handitzeko obra proiektua" dakartzan obrak egin nahi dituzte, Estudio Urgari SLPk egindako proiektuan zehaztutakoak. Eta, horretarako, elkarrizketa batzuk izan eta akordio batzuetara iritsi dira.

1992ko azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 88. artikularekin bat, Herri Administrazioek akordioak, itunak, hitzarmenak eta kontratuak egin ditzakete zuzenbide publikoko zein pribatuko pertsonekin, ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira, tratugai izan litezkeen kontuez badira eta babestu behar duten interes publikoari erantzuz.



Usurbilgo Udala



ten badiote; betiere, prozedura arautzeko xedapenean kasuan-kasuan berariaz ezartzen diren mugak, ondorioak eta araubide juridikoa izango dituzte kontuan. Egintza horiek amaitu egin ditzakete administrazio prozedurak edo prozeduran sar daitezke, amaiara ematen dien ebazpenaren aurretik, behartze indarrez zein behartze indarririk gabe.

Bi aldeek, izandako harremanen ondorioz, ondoko hitzarmena adostu dute:

**ZUBIETAKO ESKOLA TXIKIA HANDITZEKO PROIEKTUA
ETA OBRA DONOSTIAko eta USURBILgo Udalen arteko akordioa**

Donostia/Usurbil, 2014ko maiatzaren 29a.

Alde batetik: Juan Karlos Izagirre Hortelanok, Donostiako Udaleko alkate-lehendakariak.

Bestetik: Mertxe Aizpurua Arzallusek, Usurbilgo Udaleko alkate-lehendakariak.

ADIERAZTEN DUTE:

Zubietako eskolako eskola komunitatea ikastetxe hori handitzeko eskatzen ari da 2007az geroztik, eta, hori dela eta, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzarekin nahiz Donostiako Udalarekin ere aritu da hizketan.

Gaur egun, eraikin nagusi bat du eskolak, eta han dira erabilerarik garrantzitsuenak (bi ikasgela, sarrera egiten duen beste areto bat, jolastoki estalia eta psikomotrizitate gela) eta erabilerak horiek osatzeko zerbitzuak (komunak, irakasleen bulegoa, zuzendaritzarena, biltegia eta liburategia). 2007-2008 ikasturteetik aurrera, ordea, modulu aurrefabrikatu batzuk jarri beharra izan zen hezkuntzaren eguneroko jardunak behar dituen zerbitzu batzuk emateko. Modulu horiek ez ziren betiko izateko jarri, gauza asko falta eta arazo mordo bat (akustikoak, termikoak, eta abar) dituztelako.

2009ko martxoan, "Zubietako eskola: etorkizun eske" txostena eman zioten Donostiako Udalari, hizpide dugun eskolako Zuzendaritzak eta Gurasoen Elkarteak sinatua. Txosten horretan, eskaintzen den zerbitzuaren kalitate eskasaren berri ematen da, guztia ere eskolak ez duelako nahikoa tokirik eta aurrefabrikatutako modulu batzuen bidez hala moduz moldatu behar dutelako.

2013an, Donostiako Udaleko Hezkuntzako zinegotzi eskuordedunak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Lurralde ordezkariek elkarrizketa batzuk izan zituzten hizpide dugun eskolan den arazoaren inguruan, eta instalazio hori handitzeko obra egitea erabaki zuten, kostua bien artean finantzatuta. Eusko Jaurlaritzak ordaindu behar duen partearen haren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ateratako 'Udalaguntzak 2013' diru laguntza deialdiari esker izango da.

Horrenbestez, "Zubietako eskola handitzeko obra proiektua" idatzeko agindu zion Donostiako Udalak Estudio Urgari SLPr. Hala, proiektu hori idatzita dago eta baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzara bidalita ere. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak lehen esandako diru laguntza emateko ebazpena hartutakoan esleituko dira obrak, eta 2014ko udan egingo dira, eskola umeak oporretan diren bitartean, eskolak emateko endredorik ez izateko.



Usurbilgo Udala



Handitu behar den eraikin hori "Zubietako Zabalpena ZU.03" alorreko Plan Partzialak zehaztutako lursail batean da, irakaskuntzako ekipamendutarako g.0003 eskola lursailtzat jota dago eta 2583 m2 ditu (ikus honekin batera doan plano). Plan Partzial hori 1998ko abenduaren 15ean onartu zen behin betiko.

Esaten ari garen lursaila den alorraren birpartzelatze proiektua Donostiako Udala eta Usurbilgo Udala, biak, ados zirela onartu zen, hurrenez hurren 2000ko irailaren 12an eta 2000ko urriaren 3an hartutako erabakien bidez. Birpartzelatze proiektu horrek hizpide dugun lursaila Donostiako Udalarari eta Usurbilgo Udalarari esleitzea aurreikusten du, %86,43 Donostiako Udalarari eta %13,57 Usurbilgoari, baina zatitzeko ez den moduan.

Lursaila zatitzerik ez dagoenez, ESTUDIO URGARI SLPk Zubietako eskola handitzeko egindako proiektuaren parte bat Usurbilgo Udalaren %13,57 horretan izango da.

Birpartzelatze proiektu horrekin batera eta/edo hura osatze aldera, dokumentu bat onartu zuten Donostiako Udalak eta Usurbilgo Udalak: Zubietako Zabalpena ZU.03 alorraren gaineko hitzarmenaren oinarriak. Dokumentu hori alor horretan esku hartzeko irizpideak jartzeko sustatu zen, baita lizentziak emateko irizpideak zehazteko ere.

Hala, Donostiako Udalak nahiz Usurbilgo Udalak "Zubietako eskola handitzeko obra proiektua" dakartzan obrak egin nahi dituzte, Estudio Urgari SLPk egindako proiektuan zehaztutakoak. Eta, horretarako, elkarriketa batzuk izan eta akordio batzuetara iritsi dira.

1992ko azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 88. artikuluekin bat, Herri Administrazioek akordioak, itunak, hitzarmenak eta kontratuak egin ditzakete zuzenbide publikoko zein pribatuko pertsonekin, ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira, tratugai izan litezkeen kontuez badira eta babestu behar duten interes publikoari erantzuten badiote; betiere, prozedura arautzeko xedapenean kasuan kasuan berariaz ezartzen diren mugak, ondorioak eta araubide juridikoa izango dituzte kontuan. Egintza horiek amaitu egin ditzakete administrazio prozedurak edo prozeduran sar daitezke, amaiera ematen dien ebazpenaren aurretik, behartze indarrez zein behartze indarrik gabe.

Horiek horrela direla, hasieran aipatu ditugun bi pertsonen hitzarmen hau sinatzea erabaki dute:

HITZARMENA

AURRENEKOA.- Hitzarmen honen helburua Zubietako "g.000.3" lursaillean esku hartzeko irizpide batzuk jartzea da, Donostiako Udalaren eta Usurbilgo Udalaren artean adostutakoak, Estudio Urgari SLPk idatzitako Zubietako eskola handitzeko obra proiektuan datozen obrak egin ahal izateko.

BIGARRENA.- Donostiako Udalak Zubietako "g.000.3" lursaillean egingo duen obra Zubietan orain den eskola handitzea izango da, Estudio Urgari SLPk idatzitako proiektuan zehaztuta dagoena. Obrak Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak emandako diru laguntza izango du.



Usurbilgo Udala



HIRUGARRENA.- Donostiako Udalak bere aurrekontutik egingo ditu aipatzen ari garen obra hori guztia, eta Usurbilgo Udalak ez du ezeren gasturik egin beharrik izango obra horrekin zerikusia duten eraikuntzak edo instalazioak egiteagatik.

Obra horiek egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da Eusko Jaurilaritzak gastuaren finantzazioa onartzea.

LAUGARRENA.- Donostiako Udalaren erantzukizunpean izango da Estudio Urgari SLPk idatzitako proiektuan zehaztuta dauden obrak emateko prozeduraren lizitazioa, eta baita hizpide dugun obra kontratua erabat kitatu arte egin beharreko gainerako izapideak ere.

BOSGARRENA.- Era berean, Donostiako Udala izango da obra hauek egin eta gero Zubietako eskolaren eraikinari eusteko eta kasu eginda edukitzeko egin behar diren obra, lan, eta abar guztiak egiteko erantzukizuna izango duena.

SEIGARRENA.- Donostiako Udala izango da Zubietako eskola eraikitzeko eta abian jartzeko izan behar diren baimenak, lizentziak, eta abar izateko erantzukizuna izango duena.

ZAZPIGARRENA.- Usurbilgo Udalak hitz ematen du emango duela Zubietako eskola handitzeko obrak egiteko eman behar den baimena, eraikin horren zati txiki bat Usurbilgo udalbarrutian izango da eta.

Baimen horrek Donostiako Udalaren esku izan behar du hitzarmen honetan adierazitako obren lizitazioa egin baino lehen.

ZORTZIGARRENA.- Era berean, Usurbilgo Udalak hitz ematen du emango dituela obra egiteko behar diren eta obragatik beragatik Usurbilgo Udalak eman beharrekoak diren baimenak, lizentziak, eta abarrak, obren elementu edo lan osagarriak egiteko, esate baterako (ibilgailuak pasatzeko baimena, ura edo argindarra hartzeko baimena, eta abar).

BEDERATZIGARRENA.- Zubietako "g.000.3" lursailean egindako eraikuntza, instalazio, eraikin edo obra guztiak Donostiako Udalarentzat geratuko dira.

Eta halaxe jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, hitzarmen honen bi ale sinatu ditugu hasieran adierazitako tokian eta egunean.

*Juan Karlos Izagirre Hortelanok,
Donostiako alkate jaunak*

*Mertxe Aizpurua Arzallusek,
Usurbilgo alkate andreak*

Guzti hau kontutan izanik,

ERABAKI DUT

LEHENDABIZI: Donostiako eta Usurbilgo Udalaren artean, Zubietako Eskola Txikia handitzeko izenpetu beharreko **HITZARMENA** onartzea.

BIGARRENA: Plenoak 2000ko urriaren 3an onartutako akordiotik eratorritako hitzarmena aldatzea, hau da, aldatzea "Usurbilgo eta Donostiako udalek ZU.03 Zubietako Zabalpenaren gainean akordio bat



Usurbilgo Udala



iristeko oinarriak” izeneko hitzarmena, E puntuko a) eta b) atalei dagokionez. E puntua honela geratuko litzateke::

E.- Dotazio publikoak mantentzea eta, kasua denean, eraikitzea (frontoia, eta abar)

Dotazio publiko horien titularitate-erregimena eta zein udal-barrutitan kokatzen diren kontuan hartu gabe, horiek mantendu eta kontserbatzeko irizpideak, bai eta, kasua denean, egoki diren eraikinak edo instalazioak eraikitzeak ere, honako hauek izango dira:

- a) Beste entitate publiko zein pribatuetatik lor daitezkeen laguntza, subentzio, lankidetzak, etab. aparte utzita, Udal bakoitzak ekipamendu publikoko erabileretara bideratutako eraikin edo instalazioak eraikitzeak gastuen % 50 ordaindu beharko du.
- b) Beste entitate publiko zein pribatuetatik lor daitezkeen laguntza, subentzio, lankidetzak, etab. aparte utzita, Udal bakoitzak ordenatutako dotazio publikoen mantenamendu eta kontserbazio-gastuen % 50 ordaindu beharko du.

Hori hala izango da, bi udalok ez badute berariaz erabakitzen beste modu batean finantzatzea.

HIRUGARRENA: Egikaritu beharreko eraikuntzaren zati bat Usurbilgo udalaren jabetzako lur-eremuan kokatzen denez, Usurbilgo udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak 2014ko ekainaren 24an Donostiako udalari Zubietako eskola txikia handitzeko emandako udal baimenaren baldintzen artean jasotakoarekin bat etorritz, obrak amaitu ostean, lehen erabilera baimenarekin batera Usurbilgo udalaren jabari publikoko erabilpen pribatiboari dagokion Donostiako udalaren aldeko emakida administratiboa izapidetu eta formalizatu beharko da. Horretarako, obra amaierako dokumentazioarekin batera planua aurkeztu beharko da non eraikinaren eta lursailaren obra amaiera egoera eta Usurbil-Donostiako udalherrien muga gainjartzen diren, zehaztuz Usurbilgo eremuan kokatzen den lursailaren azalera eta eraikuntzaren azalera (eraikuntza zaharrarena eta berriarena biak batuta).

LAUGARRENA: Alkateari ahalmena ematea Usurbilgo Udalaren izenean aipatutako Hitzarmenak izenpetzeko.

BOSGARRENA: Dekretu hau Plenoak berrestea.

SEIGARRENA: Erabaki honen berri Donostiako Udalari ematea.

Beraz, Alkate-Lehendakariak erabakitakoa berrestea dagokio Udalbatza Plenoari.



Usurbilgo Udala



Guzti hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, 2014ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua, Jone Urdampilleta, Eustakio Arrojeria, Luis Mari Ormaetxea, Josune Urkola eta Ricardo Cresporen aldeko botoekin, aho batez, Udalbatzari egindako erizpena kontutan hartuta, honek aho batez honako erabakia hartu du:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Alkate-Lehendakariak 2014ko ekainaren 26an, 2014/0606 dekretuaren bidez hartutako erabakiak berrestea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- ATALLUKO PLAN PARTZIALAREN 4. ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Alkateak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Gai honi hasiera uztailaren 21eko dekretu bidez eman zitzaiola eta jendaurrean egon den bitartean ez dela inolako alegaziorik aurkeztu azaldu du.

Dauden aldaketek Atalluko P-6 lursailari, hau da, Alkartasuna kooperatiba eraikita dagoen lursailari eragiten dietela adierazi du.

Aldaketa honekin lursail horretan, batetik, txikikazko salmenta komertziala ahalbidetu nahi dela esan du, beti ere, industria produktuekin eta nekazaritza produktuekin lotura izanda. Aldaketa honek 16. artikuluari eragiten diola zehaztu du.

Bestetik, bigarren helburua dela dio sotoen eraikigarritasun haztatua finkatzea. Atalluko enpresetako sotoen erabilerari dagokionean, Arau Subsidiarioetan konputuen kontua nola zen ez zela garbi adierazten esan du, baina aldiz sotoen erabilera mugatu egiten zela, hau da, sotoak ezin ziren erabili produkzio jardueretarako baizik eta soilik biltegitako edo aparkalekurako. Aldaketa honekin planteatzen dena da sestra gainetik dagoena eta industriarako eta produkzio jarduerarako erabiltzen dena bat bezala konputatzea, baina sestra-azpikoak, kontutan edukita erabilera oso mugatua dutela eta produkzio jarduera ezin dutela izan, 0,5 konputatzea.

Sotoen eraikigarritasun haztatua finkatzeko aurretik inguruko herrietan nola zegoen ere kontsultatu dela jakinarazi du.



Usurbilgo Udala



Batzarkideek, Hirigintza Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2014-0144

AURREKARIAK

2014ko uztailaren 21ean, Alkateak 2014/0706 zenbakidun dekretuaren bidez zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Atallu industrialdeko Plan Partzialaren 4. ALDAKETA hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Espedientea jendaurrean jarri zen 20 lanegunez, ondoko iragarkiak argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (144. Zenbakia): 2014-08-01
- BERRIA: 2014-07-23
- GARA: 2014-07-23
- EL DIARIO VASCO: 2014-07-23

Jendaurreko epealdiaren amaiera: 2014ko abuztuak 26.

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean, ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, Plenoari ondoko erizpenaren onespena proposatzen dio:

Guzti hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, 2014ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria eta Ricardo Cresporen aldeko botoekin eta, Luis Mari Ormaetxea eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, gehiengoz, Udaltzako plenoari egindako erizpena kontutan hartuta, honek honako erabakia hartu du gehiengoz:

E R A B A K I A

LEHENA: Atalluko Plan Partzialaren 4. Aldaketa BEHIN BETIKOZ onartzea.

BIGARRENA: Plan Partzialaren 4. aldaketa Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.



Usurbilgo Udala



HIRUGARRENA: Plan Partzialaren 4. aldaketa behin betiko onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

LAUGARRENA: Plan Partzialak eragindako ondasunen eta eskubideen titularrei erabaki honen berri ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi eta Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

6.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO ERAIKUNTZA ETA ERABILERA ORDENANTZEN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK ERANTZUTEA ETA ALDAKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

Gai honi hasiera udal arkitektoaren eskariz eman zitzaiola jakinarazi du alkateak. Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Eraikuntza eta Erabilera Ordenantzek ziotena arkitektoarentzat nahiko garbi zegoen arren, promotoreek behin eta berriz beraien interpretazioak egiten omen zituzten eta 34. artikulua argitze aldera, aldaketa batzuk proposatu zirela esan du. Aipatu artikulua funtsezko aldaketa bat ez dela azpimarratu du, baizik eta berridazketa oso bat.

Jendaurrean egon den bitartean bi alegazio aurkeztu direla esan du, bi promotorek aurkeztutakoak. Alegazio hauetan 34. artikulua aurrez jasotzen zituenak aldatzea proposatzen dela dio, hau da, oinarrizko aldaketa bat da proposatzen dutena. Alde batetik, Jaureguizar promotoreak terrazak, balkoiak, aterpeak, atzerapenak etab. ez konputagarri izatea eskatzen zuela esan du eta, bestetik, GEDIk eskatzen omen zuen eskailerak, portalak, trastelekuak ere ez konputagarri izatea.

Arkitektoaren txostenaren baitan, GEDIk eskatzen duena ez dela onargarria esaten da eta Jaureguizarren alegazioa puntu batean partzialki onartzea proposatzen da, aleroari dagokion eskaeran, hain zuzen ere. Orain arte aleroek 0,8 m-ko fondoa gainditzen zutenean konputatzen zutela zehaztu du eta Jaureguizarrek eskatzen du aleroek ez konputatzea 1,2 m izan arte. Arkitektoak planteatzen duena omen da 1 m-ra arte ez konputagarri izatea. Honekin batera, behe solairuetan lehen solairuetako balkoiak egiten duen proiektzioa ez konputagarri bezala kontsideratzen dela esan du, beti ere, metro hori gainditzen ez duen bitartean.



Usurbilgo Udala



Beste alde batetik, arkitektoak aholkatzen omen du beste guztia berrikusi beharko balitz, ikusirik plan orokorra izapidetzen edo lantzen hasia dela udala, hausnarketa bat egitea eta beste gai guztien inguruko erabakiak hor hartzea.

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: HZ.02/2013-0173

AURREKARIAK

Plenoak, 2013ko irailaren 24ean, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako eraikuntza eta erabilera ordenantzaren aldaketari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Era berean, ordenantza 30 lan-egunez jendaurrean jartzea erabaki zuen. Erabakiak honela zion:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako eraikuntza eta erabilera ordenantzaren ALDAKETA hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, ordenantzaren ALDAKETA jendaurrean jartzea 30 lanegunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratuz, interesatuek berau aztertu, eta hala badagokio, bidezko erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA: Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordenantzaren aldaketa behin betiko onartutzat joko da, eta, beraz, Plenoak ez du horren gainean erabaki berririk hartu beharrik izango. Dena den indarrean jartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.

Ordenantza jendaurrean jarri zen 30 lan-egunez, ondoko iragarkiak argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (191. zenbakia): 2013-10-07
- Berria: 2013-10-03
- Gara: 2013-10-03
- El Diario Vasco: 2013-10-08

Jendurreko epealdiaren amaiera: 2013-11-14. Jendurreko epealdian, ondoko 2 alegazio aurkeztu dira:

Alegazioa
zenbakia

Interesatua

Sarrera
Eguna Zbkia



Usurbilgo Udala



1	Jaureguizar, Promoción y Gestión Inmobiliaria, S.L.	2013-11-13	3851
2	GEDI, Grupo de Promoción e Infraestructuras, S.A.	2013-11-14	3864

ALEGAZIOEN ERANTZUNA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkunek, alegazioak aztertu ostean ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariek Alkate andreari
PLANEAMENDUA
HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO ERAIKUNTZA
ETA ERABILERA ORDENANTZA ALDAKETAREN ALEGAZIOEI ETA
BEHIN BETIKO ONESPENARI TXOSTENA

1.- GAIA:

Usurbilgo plangintzako hiri antolaketako arauen berrikuspenaren texto bateginaren eraikuntza eta erabilera ordenantza aldaketaren haserako onespeneren alegazioei erantzuna eta behin betiko onspenari txostena.

2.- AURREKARIAK:

- 2013ko irailaren 24an Plenoaren erabakia Eraikuntza eta Erabilera Ordenantzaren aldaketa haseraz onartuz eta jendaurrean jarritz.
- 2013ko urriaren 3an GARA-n iragarkia, urriaren 8an Diario Vasco-n iragarkia.
- 2013ko urriaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua.
- 2013ko azaroaren 13an Iñaki Baztarrika Gutierrez jaunak alegazioa ezarri zuen Jaureguizar, Promoción y Gestión Inmobiliaria S.L.-ren izenean.
- 2013ko azaroaren 14an Jose Manuel Amantegui Mitxelena jaunak alegazioa ezarri zuen GEDI, Grupo de Promoción e Infraestructuras S.A.-ren izenean.
- 2014ko uztailean Alkateak gaiari lehentasuna emateko eskatu du.

3.- ALEGAZIOAK

3.1. Lehendabiziko alegazioa.- Iñaki Baztarrika Gutierrez jaunak, JAUREGUIZAR, Promoción y Gestión Inmobiliaria, S.L.-ren izenean aurkeztutakoa.

3.1.a. Alegazioaren laburpena.



Usurbilgo Udala



Iñaki Baztarrika Gutierrez jaunak, Jaureguizar S.L. enpresaren izenean aurkeztutako alegazioan eskatzen da, haserako onespena eman zaion 34. artikulua aldaketaren doikuntza, honakoak proposatuz;

Alde batetik, Haserako Onespenean proposatutako erredakzioari, esparru konputagarri dagokionean, balkoi, terraza, egutera eta portxeak ezarritako baldintzetan konputagarri mantentzen ditu beti ere, ez badira hirigintza planeamenduak ezarritako baldintzei dagozkienak eta haien azpian gunera eraiki eta itxiak edota irekiak konfiguratzeko dituztenak (ikus zehatzago alegazioan). Era berean, haseraz onartutako aldaketak atikoetan teilatu-hegalari dagokion irizpidea bertan behera uzten du (ezabatuz) idatziaren amaieran, aldiz, idatziaren 1.2. puntuan 1,2mtik beherako fondoan duten teilatu-hegalak ez konputagarri kontsideratzea eskatzen du.

Bestetik, Haserako Onespenean proposatutako erredakzioari, esparru ez konputagarri dagokionean, aurrez aipatutako terraza eta antzeko elementuak gehitzen dizkio eta baita, edozein oinetan eman ahal diren lerrokatutako atzeratzeak (*retranqueos*), haien ondorioz sortutako gunek ez konputagarritzat joaz (ikus zehatzago alegazioan).

3.1.b. Alegazioaren azterketa.

Alegazioaren edukia aztertuta, lehenik eta behin esan beharra dago, aldaketa honen xedea ez dela inolaz ere egun indarrean den Eraikuntza eta Erabilera Ordenantzen 34. artikulua irizpideen funtsa aldatzea, argibideak gehitzea baizik. Honela finkatu zen Usurbilgo Udalbatza Plenoak 2013ko urriaren 1ean onartutako Hirigintza Batzorde Informatzailearen diktamenean eta hartutako Haserako Onspen erabakian. Zentzu horretan, idatziaren 2. puntuan aipatzen den Aldaketa honen ezaugarria, esaten denez, errealitate eta elementu ezberdinak modu bateratuan hartzeko aukera ematen duena, hala izatekotan, ez litzateke Aldaketa honek ezartzen duen irizpide berri bat, egun indarrean den 34. artikulua jada barneratzen duena baizik. Ondorioz, horren aldatzea ez legokio argibide hutsa helburu duen aldaketa honi, funtsezko hausnarketa eta artikulua berridazketa dagokion beste aldaketa bati baizik.

Behin hau esanda eta alegazioak barneratzen dituen proposamen zehazetara etorri, alde batetik esan beharra dago, balkoi, terraza, egutera eta portxeak, baita altxaera atzerapenak ere (*retranqueos*) beti oinarrituko direla hirigintza planeamenduak ezarritako baldintzetan, izan ere, antolamendu dokumentuetan (ordenazioa xehakaturik; Plan Bereziak, Plan Partzialak eta beste dokumentu batzuk; Xehetasun Azterlanak) jasotako parametroek ahalbidetzen edo derrigortzen baitituzte haien egikaritzea, kasuan kasuan. Horren harira, hirigintza planeamenduak ezarritako baldintzekin izan litezkeen desadostasunak haien izapidetze prozeduretan ezarritako tresna bidez konpon litezke, indarrean den legeak finkatutakoari jarraituz. Horrekin batera, zentzu horretan alegazioak proposatzen duena onartzeak balkoiak, terrazak, egutera eta portxeak ez konputagarri kontsideratzea dakar berarekin, baita altxaera atzerapenak ere, eta horrek, haseraz onartutako aldaketa dokumentuak helburu zuen



Usurbilgo Udala



argibideak gehitzeaz areago, udalherri osoan eragingo lukeen eraikigarritasun aldaketa ekarriko luke berarekin, funtsezko aldaketa izanik.

Bestetik, idatzia aztertuta honako argibide edota zehaztapenak egin beharra dago:

- Idatzian aipatzen den atikoen kasuan, non oin horretako altxaera atzerapenari jarraituz terrazak konfiguratzaren diren -era berean, hauek azpian duten oinaren estalkia izanik-, terrazak esparru konputagarritzat hartuko dira, Aldaketa honetan eta 34. artikuluan ezartzen den moduan, *estaldura dutenean eta erabilera publikoko zortasunik ez dutenean*. Hau da, Aldaketa honek ez du finkatzen atikoetako terrazak estaldurarik ez duenean eta erabilera publikoko zortasunik ez duenean azalera hori konputagarria denik.

- Idatzian erreferentziatzen hartzen den *Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuaren 2009ko otsailaren 12ko Aginduak onartu Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Diseinurako Ordenantzak* ez du eraikigarritasuna erregulatzen, baizik eta azalera erabilgarriaren ingurukoak finkatzen ditu (*superficie útil*). Orain eskuartean dugun Aldaketa dokumentuak ez dio inolaz ere azalera erabilgarriari eragiten, eta orohar, Ordenantzen 34. artikulua ez dator hura erregulatzerara.

Azkenik, alegazioak proposatzen du atikoetako teilatu-hegala esparru konputagarritzat hartzekotan, beti ere 1,2 m-ko fondoaz gainditzen duenean izatea, haseraz onartutako Aldaketak ezarritako 0,8 m-ko fondo gehiengo aldatuz eta neurri aldaketa hau justifikatzen duen inolako arrazorik eman gabe. Behean izenpetzen duen teknikariari 0,8 m-ko neurria 1 m-ra handitzea egokia iruditzen zaio, beti ere teilatu-hegalak elementu/xehadura/soluzio konstruktibo bati erantzuten dio zentzuan oinarrituz, orainartean egikaritu diren eraikuntzen neurriak eta onartu diren planeamendu dokumentuek ezarritako parametroak ikusita. Honekin lotuta eta alegazioaren aurreko puntuetan eskatu denaren harira, behean izenpetzen duen teknikariari egokia iruditzen zaio, 1m-ko fondo gehiengoan duten eraikuntza lehen solairuetako balkoien kasuan, hauek sestra gaineko behe solairuan duten proiektzioa ez konputagarritzat hartzea, erabilera publikoko zortasunik izan edo ez.

3.2. Bigarren alegazioa.- Jose Manuel Amantegui Mitxelena jaunak, GEDI Grupo de Promoción e Infraestructuras S.A.-ren izenean aurkeztutakoa.

3.2.a. Alegazioaren laburpena.

Jose Manuel Amantegui Mitxelena jaunak, GEDI S.A.-ren izenean aurkeztutako alegazioan eskatzen da, Deba eta Leioako udalherrietan egin diren eraikigarritasun konputuaren aldaketetan oinarrituz, 34. artikulua idazketa berria, non:

Alde batetik, Haserako Onespenean proposatutako erredakzioari, esparru konputagarriari dagokionean, lehenengo bi gidioak ezik gainontzeko guztiak kentzen dizkio. Era berean, esparru



Usurbilgo Udala



konputagarri bezala gehitzen ditu lehen sotoa eta erdisotoa eraikuntzaren elementu amankomunetarako erabiltzen ez direnean eta estalki beheko oinak 1,5 m-ko altuera libretik gora.

Bestetik, haserako onespenean proposatutako erredakzioari, esparru ez konputagarriei dagokionean, hala kontsideratzen ditu: instalakuntza amankomunak, igogailu eta makinaria barneratzen dituztenak, eraikuntza barneko patioak eta fatxadara irekiak, berariaz baimendu eta planeamenduak ez konputagarri bezala kontsideratu goitegiak, balkoi, egutera eta terraza ireki edo itxiak, zenbait baldintza betetzen dituzten portxeak -bide publikoaren mailan kokatuak, itxiturarik gabeak eta erabilera publikoa dutenak eta 3 m gutxienerako neurria fondoa dutenak erabilera publikorako-, irabazizko guneei zerbitzu ematen dietenak –hala nola; portale azalerak, etxebizitza sarbide azalerak, eskailerak, atarteak, igogailu kaxak, instalakuntza eta zerbitzu gelak, indarrean den araudiak eta Hiri Hondakinen Udal Ordenantzak ezartzen dituen lokalak, arrapala eta ibilgailu bideak, trasteleku eta eranskinen korridoreak, suteetarako ihesbideak, goranzko eskailerak eta larrialdi irteerak, aurrekoen antzeko diren guztiak eraikuntzaren erabilera amankomuneko direnak. Era berean, esparru ez konputagarri bezala gehitzen ditu etxebizitzako trasteleku bat, altuerako eraikuntzetan 12 m²-ko azalera baliagarriaz gaindi ez dena eta eraikuntza adosatuetan 30 m²-ko azalera baliagarriaz gaindi ez dena.

3.2.b. Alegazioaren azterketa.

Alegazioaren edukia aztertuta, lehenik eta behin esan beharra dago, Eraikuntza eta Erabilera Ordenantzen 34. artikulua erabateko erredakzio berria proposatzen duela idatzi honek, eraikuntza aprobetxamenduaren konputurako irizpideetan udalherri osoan eragingo duten funtsezko aldaketak barneratuz.

Horrekin batera, haseraz onartutako dokumentuan egun indarrean diren Ordenantzetan bezala mantendutako aurka doa alegazioa, hau da, hainbat esparru ez konputagarri kontsideratuz –hala nola, balkoiak, terrazak eta egutera ireki zein itxiak, instalakuntza, makineria eta igogailu guneak, bigarren sototik beherako oinak, eskailerak, etxebizitza sarbideak, portaleak, trastelekuen korridoreak, zenbait trasteleku, e.a.- eta 1,5 mtik gorako estalkibeheko azalera konputagarri kontsideratuz.

Usurbilgo Udaltza Plenoak 2013ko urriaren 1ean onartutako Hirigintza Batzorde Informatzailearen diktamenean zehazten zenez eta hartutako erabakiaren arabera; *“Eraikuntza eta erabilera ordenantzak, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetan onartu zirenak, 34. artikuluari **argibideak gehituz aldatuko dira. Aldaketa honek 34. artikulua sortzen dituen **gaizkiulertu eta interpretazio okerrak saihestea du helburu**”***. Beraz, azaldu bezala haseraz onartu zen aldaketa honen helburua ez zen inolaz ere eraikuntza aprobetxamenduaren konputurako irizpideetan funtsezko aldaketak eragitea, soilik argibideak gehitzea baizik. Haseraz onartutako aldaketak indarrean den 34. artikuluari argibideak gehitzen zizkion



Usurbilgo Udala



bitartean, aurkeztu den alegazioak konputu irizpide berriak ezartzen ditu egiturazko antolamenduaren funtsari eraginez.

Era berean, idatzian bertan esaten den bezala, aurkeztu den erredakzio berriaren proposamena Leioa eta Debako udalherrietan egindako Aldaketa dokumentuetan oinarritzen da. Esaten denez, erreferentziazko dokumentu horiek EAE-ko Lurralde Antolamendurako Batzordeak nahiz Foru Aldundietako Lurralde Antolamenduko Zerbitzu Tekniko eta Juridikoek aztertu eta onartu dituzte izapidetze horren baitan. Izapidetze prozedura hau *2/2006 Lurzoruaren Legeak* 90. eta 91. artikuluetan eta *ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak*, *Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006ko Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak* 33. artikuluan ezarritakoari dagokio.

Usurbilgo Udalbatza Plenoak 2013ko urriaren 1ean onartutako Hirigintza Batzorde Informatzailearen diktamenean zehazten zenez eta hartutako erabakiaren arabera, haseraz onartutako dokumentuaren izapidetzea Lurralde eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 75. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Toki-araubidearen legeriaren arabera eta Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 49. artikuluetan ezarritako betez egikarituko da. Beraz, Usurbilgo Udalak haseraz onartu duen Aldaketa dokumentuaren izapidetze maila eta idatzian erreferentziazkat hartzen diren izapidetzeen maila ez da bera eta ondorioz, ezta aldaketak berak ere. Hau da, esan liteke alegazioak oinarritzat hartzen dituen dokumentuak Arauen funtsezko aldaketa bati dagozkiola, aldiz, orain eskuartean dugun Aldaketa hau Ordenantzen aldaketa soila da eta ez du helburu egiturazko antolamenduari eragitea.

4.- ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki eta azaldu diren arrazoiak medio honakoa PROPOSATZEN da:

1. JAUREGUIZAR S.L.-ren izenean aurkeztutako alegazio PARTZIALKI ONARTZEA, haseraz onartutako Aldaketa dokumentuan 34. artikuluko esparru konputagarrien azken gidoia, atikoetako teilatu-hegalei dagokiena, honela doituz eta beste gidoi bat gehituz:
 - a) *“Atikoetan, teilatu-hegalaren proiektiotik sortutako kanpoko espazio estalia ez da kontuan hartuko eraikigarritasun modura, beti ere, horizontalki 1 m-ko hondoa gainditzen ez duenean (baldin eta neurri hau ganditzen badu, bere osotasunean hartuko da kontuan).*
 - b) *Behe solairuetan, lehen solairuetako balkoiaren proiektiotik sortutako kanpoko espazio estalia ez da kontuan hartuko eraikigarritasun modura, beti ere, horizontalki 1 m-ko hondoa gainditzen ez duenean (baldin eta neurri hau gainditzen badu, bere osotasunean hartuko da kontuan).* “



Usurbilgo Udala



Alegazioak barneratzen dituen gainontzeko aldaketak ez dira ontzat hartzen. Alta, behean izenpetzen duen teknikariaren ustez proposamen horiek ekarpen interesgarriak dira, aintzat hartu beharrekoak, eraikigarritasun konputu irizpideei dagokion hausnarketa sakon baten baitan egiteko eta udalherri guztiari eragiten dioten heinean, Arauen berraztertze edota berrikuntza oso baten barne kontsideratzeko. Horregatik, Udalak egun Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerakina eskuartean duela jakinik eta Plan Orokorra hurbileko epe batean izapidetuko dela suposatuz, Aldaketa honi dagokionean ez onartzea proposatzen den arren, Plan Orokorrari begira mahai gainean uztea eta bertan kontsideratzea gomendatzen du behean izenpetzen duen teknikariak.

2. GEDI S.A.-ren izenean aurkeztutako alegazioa EZ ONARTZEA.

Alta, aurreko alegazioan onartzen ez direnekin batean, proposamen hauek Plan Orokorrari begira mahai gainean uztea eta bertan kontsideratzea gomendatzen du behean izenpetzen duen teknikariak.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2014ko irailaren 18an.
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Udal gobernu taldeak, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Jaureguizar, Promoción y Gestión Inmobiliaria, S.L. enpresak aurkeztutako alegazioa, udal arkitektoak adierazitakoaren arabera partzialki aintzat hartzea hobetsi du.

ALDAKETA

Hala, udal arkitektoak bere txostenean adierazitakoa aintzat hartuz, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetan 34. artikulua honela geldituko litzateke:

Eraikuntza eta erabilera ordenantzen ALDAKETA

*34. artikulua. Eraikuntza
aprobetxamenduaren konputurako
irizpideak:*

Esparru konputagarriak:

MODIFICACION de las ordenanzas de edificación y uso.

*Artículo 34. Criterios de cómputo del
aprovechamiento*

Espacios computables:



Usturbilgo Udala



Honako espazio hauek konputatuko dira eraikin baten eraikuntza aprobetxamenduaren zati bezala, izaera orokorrean:

- 1,8 m baino gehiagoko altuera libre duten espazio estaliak eta itxiak –altuera hori gainditzen duten atalak hartuko dira kontuan–.
- Eraikuntzaren elementu trinkoak.
- Patioak eta $\varnothing < 1,5\text{m}$ duten instalazio eroanbideak.
- Igogailuen baoak.
- Mota orotako balkoi, terraza, egutera eta karrerapeak, estaldura dutenean eta erabilera publikoko zortasunik ez dutenean (Euren azaleraren %50 konputatuko da, kanpoaldera irekiak badira edo badaude betiere, fatxadaren lerrotik kanpo hegalean).
- Estalkipeetan lehen aipaturiko esparruak eta elementuak konputatuko dira, lursailaren berezko erabileretarako edo erabilera baimenduetarako direnean.
- **1,80 m baino gehiagoko altuera libre duten espazio estaliak eta itxiak, altuera hori gainditzen duten zatian, edozein kasuetan hartuko dira kontuan, kokatutako oina zeinahi dela ere, hau da, sestra gainekoa zein azpikoa izan (beheko, goiko, teilatupeko eta atiko oinak).**
- 1,8 m baino gehiagoko altuera libre duten sestra gaineko espazio estaliak eta irekiak, altuera hori gainditzen duten zatian, %50ean hartuko dira kontuan
- Instalazio eta eranskin erabilera eta 1,80 m baino gehiagoko altuera libre duten espazio itxiak eta estaliak, altuera hori gainditzen duten zatian, %100ean hartuko dira kontuan.
- Instalazio edo eranskin erabilera eta 1,8 m baino gehiagoko altuera libre duten espazio irekiak eta estaliak, altuera hori gainditzen duten zatian, %50ean hartuko dira kontuan. Espazio estaliak eta irekiak bezala jotzen dira, estalkia eta egitura eusgarria soilik dutenak.
- Atikoetan, teilatu-hegalaren proiektioetik sortutako kanpoko espazio estalia ez da kontuan hartuko

Computarán con carácter general como parte del aprovechamiento edificatorio de un edificio los espacios siguientes:

- Los espacios cubiertos y cerrados con más de 1,8 m de altura libre – computará la parte de los mismos que supere dicha altura–.
- Los elementos macizos de la edificación.
- Los patios y los conductos de instalaciones de $\varnothing < 1,5\text{m}$.
- Los huecos de ascensores.
- Los balcones, terrazas, solanas y porches de todo tipo, cuando dispongan de cubrimiento y no estén sometidos a servidumbres de uso público. (Se computará el 50% de su superficie, siempre que estén o permanezcan abiertos al exterior y en vuelo desde la línea de fachada).
- En los bajo cubiertas computarán los espacios y elementos anteriormente señalados, que se destinen de forma predominante a los usos característicos o autorizados de la parcela.
- **En los espacios cubiertos y cerrados con más de 1,80 m. de altura libre, la parte de los mismos que supere dicha altura computará en cualquier caso, independientemente de la planta en la que se encuentre, es decir, bajo rasante o sobre rasante (planta baja, altas, bajocubierta y ático).**
- Los espacios cubiertos y abiertos sobre rasante con más de 1,8 m de altura libre, la parte de los mismos que supere dicha altura computará al 50 %.
- Las instalaciones y anexos ubicados en espacios cubiertos y cerrados, con más de 1,8 m de altura libre, la parte de los mismos que supere dicha altura computará al 100%.
- Las instalaciones y anexos ubicados en espacios cubiertos y abiertos, con más de 1,8 m de altura libre, la parte de los mismos que supere dicha altura computará al 50%. Se consideran espacios cubiertos y abiertos aquellos que comprenden únicamente de cubierta y la



Usurbilgo Udala



- eraikigarritasun modura, beti ere, horizontalki 1 m-ko hondoa gainditzen ez duenean (baldin eta neurri hau gaitzen badu, bere osotasunean hartuko da kontuan).
- Behe solairuetan, lehen solairuetako balkoiaren proiektioetik sortutako kanpoko espazio estalia ez da kontuan hartuko eraikigarritasun modura, beti ere, horizontalki 1 m-ko hondoa gainditzen ez duenean (baldin eta neurri hau gaitzen badu, bere osotasunean hartuko da kontuan).

(...)

- estructura portante de la misma.
- En áticos, el espacio cubierto exterior resultante de la proyección del alero no computará como edificabilidad siempre y cuando no supere 1 m de fondo en su proyección horizontal. (En caso de superar esta dimensión, computará en su totalidad).
 - En plantas bajas, el espacio cubierto exterior resultante de la proyección del balcón de planta primera no computará como edificabilidad siempre y cuando no supere 1 metro de fondo en su proyección horizontal (en caso de superar esta dimensión computará en su totalidad).

(...)

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 75. artikuluan xedatutakoari jarraituz, toki-araubidearen legeriaren arabera gauzatuko da eraikuntza eta erabilera ordenatzen aldaketa.

ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEKO AHALMENA ETA PROZEDURA

- Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22. artikuluan xedaturikoaren arabera, Ordenantzaren aldaketaren onespena Plenoari dagokio.
- Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. artikuluan Ordenantzak onartzeko prozedura finkatzen da, hauen aldaketarako ere aplikagarria delarik.
 - Plenoak Hasierako Onespena
 - Erakusketa publikoa interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko gutxienez 30 eguneko epea emanaz
 - Epe barruan aurkezturiko erreklamazio eta iradokizunak ebatzi eta behin betiko onespena Udalbatza Plenoak.
Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean behin betiko izaeraz onartua ulertuko da behin behinekoa zen akordioa.

Guzti hau kontutan izanik, Hirigintza Batzordeak, 2014ko irailaren 25ean egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria, Luis Mari Ormaetxea eta Ricardo Cresporen aldeko botoekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, gehiengoz, Plenoari egindako erizpena kontutan hartuta, honek gehiengoz honako erabakia hartu du:



Usurbilgo Udala



ERABAKIA

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako eraikuntza eta erabilera ordenantzen aldaketaren hasierako onespenerari aurkeztutako alegazioak ondoko eran erantzutea:

1. 01. alegazioa

Sarrera data-zenbakia: 2013-11-13 / 3851

Interesatua: Jaureguizar, Promoción y Gestión Inmobiliaria, S.L.

Alegazioa PARTZIALKI AINTZAT HARTZEA udal arkitektoak egindako txostenaren arabera.

2. 02. alegazioa

Sarrera data-zenbakia: 2013-11-14 / 3864

Interesatua: GEDI, Grupo de Promoción e Infraestructuras, S.A.

Alegazioa aintzat EZ hartzea udal arkitektoak egindako txostenaren arabera.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako eraikuntza eta erabilera ordenantzaren ALDAKETA behin betikoz onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ematea, ordenantzaren aldaketa bere osotasunean argitaratuz.

LAUGARRENA: Erabaki hau alegazioak tartekatu dituztenei jakinaraztea.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

7.- 2014 URTERAKO USURBILGO HERRI BARRUKO TAXIEN TARIFA BERRIAK ONARTZEA.

Jone Urdampilletak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Adierazi du urtero bezala Buruntzaldeako batzordea izan zutela eta taxisten bi elkarteek 2015erako



Usurbilgo Udala



igoerarik ez aplikatzea proposatu zutela. Hau horrela, Buruntzaldeako bost udalerriek eta taxisten bi elkarteek proposamen hori ontzat ematea bozkatu omen zuten eta, beraz, 2015erako 2014ko prezioak mantenduko liratekeela gaineratu du.

Batzarkideek, Zerbitzutako Batzorde Informatzailearen diktamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2014-0387

Aurrekariak

2002 urtean, Eusko Jaurlaritzak, Taxien legea, "bidaiariak herri barruan" eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen 2/2000ko legea, onartu zuen. Lege hau hartuta "BURUNTZALDEA ERREGIMEN BEREZIKO GUNEA" sortu zen, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbil udalerriekin, (*Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako departamentuko diputatuak agindutako, 2007ko maiatzaren 29ko Foru aginduan eta 2007ko ekainaren 11ko G.A.O. 114 zenbakian argitaratua*).

2/2000 legea garatzen duen erregelamenduko 57. artikulua eta hurrengoak diotenez, kotxe bidez garraio zerbitzua ematea, tarifa bati lotuta egongo da, eta eskumena duen organoak aldiro errebisatu eta onartu beharko du.

Tarifa hori, loteslea eta derrigorrezkoa izango da, bai hirirako bai hiriarteko ibilbideetan.

Era berean, garraiorako tarifak arlo guztiekin batera onartuko direla adostu da. Tarifetan ekoizpen eta antolaketa egoera normal bateko, benetako kostu guztiak, sartu beharko dira: batetik amortizazio egoki bat egiteko eta enpresarentzako arazoizko mozkinak emateko, eta bestetik zerbitzua edo jarduera egokia emateko. Horregatik udalerrri horietan, tarifaren berrikuspena egin beharko da, era bereko tarifa mantentzeko.

Bestalde, tarifak urtero berrikusten dira, eta horretarako kostuen egituraren osagaietan izandako gorabeherak kontutan hartuz, hau da, jardunaren oreka ekonomikoan eragin izan duten gorabeherak.

Ikusirik

2013ko abenduaren 20an Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Euskadiko Prezioen Batzordearen erabakia. Bertan, 2014 urterako USURBILGO udalak aurkeztu zituen Auto Taxi bidariei zuzendutako hiri garraio zerbitzu publikoaren salneurriak onartu ziren. Hauek izan ziren 2014 urterako onaturiko eta oraindik indarrean dauden tarifak:

2014ko HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA	
Tarifa 1*	Tarifa 2**



Usurbilgo Udala



Gutxiena	Egindako kilometroak	Itxaro ordua	Gutxiena	Egindako kilometroak	Itxaro ordua
5,1200	1,0885	20,8880	6,1028	1,7436	32,8274

**Lanegunetan 07:00etatik 22:00arte*

Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00arte . Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00arte bai **larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31gunetan.

Taxilarien erosteko ahalmena mantentzearen alde eta udalerrriak taxi tarifa jakinak urte naturalaren hasieran jar ditzan **2015 urtean USURBILGO TAXI TARIFA BERRIEN ONARTZE ESKAERA** aurkeztu dute Gipuzkoako taxien bi elkarteek.

2015 urterako Taxien elkarteetatik aurkeztu diren proposamenak hauek dira:

1.-G.TAXI GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEAREN TARIFAK 2015 URTERAKO

G.TAXI Gipuzkoako Taxien Elkartearen izenean Gregorio Alias Jerico jaunak hau dio:

- 2015eko ekitaldirako , ordezkatzeko dituen profesionalak, beraien jarduera profesioletarako indarreko tarifen gehikuntzarik ez eskatzea erabaki dutela.

- 2015an zehar 2014ko tarifak mantendu nahian, aurretik aipatutako taxi-profesionalen helburuak honako hauek direla:

. Azken urteetan taxi zerbitzuaren eskaera areagotu eta sektorearen errentagarritasuna larriki kaltetu duena ongi ulertzea.

. Taxi tarifak eta kontsumoaren gainerako prezioak lerrokatzea,azken hamabi hilabeteetan zehar, urteroko aldaketako balioak zero zenbakiaren hurbil egon baitira.

2.-AGITAX TAXIAREN GIPUZKOAKO ELKARTEAREN TARIFAK 2015 URTERAKO

AGITAX Taxiaren Gipuzkoako Elkartearen ordezkartzan Emilio Fernandez Hidalgo jaunak azterketa ekonomikoa aurkeztu du eta datorren urteko tarifei dagokienez hau dio:

- Erabili behar den barruko elkartutako tarifa aurreko urtekoaren berdina da, 0% igoera egin ondoren (aipatutako azterketa ekonomikoa oinarrituta),



Usurbilgo Udala



tarifaren taula 2015 urterako 2014ko taulako prezio eta baldintza berdinwekin mantentzen da.

2014ko irailaren 12an Buruntzaldeako eskualdea osatzen duten Udaletako ordezkariak bien tarifa horiek aztertzeko bildu dira Lasarteko Udaletxean; Lasarte, Andoain, Urnieta, Usurbil, eta Hernaniko ordezkariak bertaratu ziren bilkura horretara bokal bezala ihardunez. Bokal bezala ihardunez bertaratu ziren baita ere Urnieta, Andoain, Hernani (2. puntun inkorporatzen da) eta Usurbilgo taxi titularrak (Udal bakoitzeko titular bat). Bilkuran ziren, baita ere, etorle bezala G.Taxi Gipuzkoako Taxilarien elkarteko ordezkaria, AGITAX Gipuzkoako Taxilarien elkarteko ordezkaria eta Angel Biurrun Usurbilgo taxilaria.

Bi proposamenak entzun eta aztertu ondoren AHO BATEZ erabaki zuten 2015 urterako tarifak kongelatzeko, beraz, aurreko urteko prezioak mantentzea. Honako tarifa eta baldintzak onartu dira 2015 urterako:

2015ko HIRI BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA					
Tarifa 1*			Tarifa 2**		
Gutxiena	Egindako kilometroak	Itxaro ordua	Gutxiena	Egindako kilometroak	Itxaro ordua
5,1200	1,0885	20,8880	6,1028	1,7436	32,8274

***Lanegunetan 07:00etatik 22:00arte**

****Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00arte . Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31gunetan.**

Kontutan harturik

Herriko eta herriz kanpoko Garraio Publikoari buruz ekainaren 29ko 2/2000 Eusko Legebiltzarreko Legearen 3.3. eta 17.6 artikuluek diote Udalari dagokiola tarifak jartzea.

Gauzak horrela, Zerbitzutako Batzordeak 2014ko irailaren 25ean egindako bilkuran, aho batez, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria, Josune Urkola, Luis Mari Ormaetxea eta Ricardo Cresporen Aldeko botoarekin, Udalbatza Plenoari egindako erizpena kontutan hartuta, honek honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Usurbilgo herri barruko garraiorako 2015. urterako proposatu diren autopatutako auto-taxi tarifak ONARTZEA.



Usurbilgo Udala



BIGARREN: Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari onespeneraren erabakia bidaltzea behin betiko onespenera eman dezan.

HIRUGARREN: Erabaki honen ziurtagiria herriko taxi titularrei, G.TAXI Gipuzkoako Taxien Elkargoari, AGITAXi Foru Aldundiko Garraio Departamentuari eta Gasteizko Ekonomia eta Ogasun Departamentuko arduradunari bidaltzea.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- GALDERAK, ESKAERAK ETA MOZIOAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

8.1.- EHBILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: KUTXAREN ETA KUTXABANKEN IZAERA PUBLIKO ETA SOZIALA.

Josu Portuk mozioa irakurri du.

Batzarkideek, mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Ia 150 urte inguru pasatu dira Donostiako (Bilbo, Gasteiz...) Udalak eta Gipuzkoako (Araba, Bizkaia...) Aldundiak Caja de Ahorros de San Sebastian eta Caja de Ahorros de Gipuzkoa sortu zituztenetik. Zalantzarik ez dago, eta historiari errebaso txiki bat ematea nahikoa litzateke, kutxa horiek sortu zirenean, hasieratik, funtzio publiko eta sozial bat betetzeko sortu zirela.

Funtsean, honokoa zen aipaturiko helburu eta funtzio publiko eta soziala: bertako herritarren aurrezkiak, bertan inbertituak izateko apustua bermatzea. Horretarako, herritarrei eta familiei finantza-zerbitzua eskaini, bertako enpresari txikiei finantziarioa bermatu, udalen finantziario eta inbertsioetan lagundu, bertako ekonomiarentzat estrategikoak izan daitezkeen proiektuak bultzatu eta hori gutxi balitz, lortutako etekinak gizarte-ekintzan inbertitzea izan dute kutxek urteetan helburu.



Usurbilgo Udala



Une honetan ordea, erraz esan dezakegu kutxen bategitetik sortu den Kutxabanken ildoa ez dela bertako herritarrei eta ekonomiari begirako funtzio publiko eta sozialabetetzen ari. Aitzitik, negozio hutsa eta bidegabea da besterik gabe bultzatzen ari dena. Hori gutxi balitz, kutxak banku-fundazio bihurtzeko hautuarekin, kontrol publiko eta soziala murriztuko da eta jada iragarri den pribatizazioaren bideari ateak ireki dakizkioke, aipaturiko funtzio publiko eta sozial hori behin betirako desagerraraziz.

Historikoki bete duten funtzioagatik, zein egungo egoera ekonomiko zailean bete beharko luketen funtzioagatik, garrantzitsua da oso bestelako norabidean doan bide berri bati ekitea eta hortxe kokatzen ditugu hain zuzen Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu duen proposamenaren helburuak. Horrexe diote hitzez hitz:

1. “Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxaren izaera publiko eta soziala bermatzea du lehen helburu.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, izaera publiko eta sozial horren bidez, entitate fundatzaileek hasieratik finkatutako helburuak berreskuratu nahi ditu XXI. mendeko Euskal Herrira egokitutako Kutxabank eta kutxen izaera eta helburuak bermatuz.
3. Bizi dugun krisi ekonomiko latz honetatik ateratzeko eta Gipuzkoa eta Euskal Herri Berria eraikitzeko finantza-tresna publiko eta soziala izatea.
4. Bertako ekonomia errearen mesedetan arituko den finantza-entitatea izatea eta herri zein eskualdeetako errealitate sozialarekin eta ekonomikoekin lotuta egotea, izan daitezkeen behar ekonomiko eta sozialen aldeko inbertsioak eginez:
 - Bertako autonomoei, merkatariei, enpresari txikiei eta kooperatibistei finantziarioa bermatzea.
 - Udalei aurreikusi ditzaketen inbertsioei begira, finantza-baliabideak eskaintzea.
 - Kutxen sorreran egon zen langileekiko eta familiekiko begirunea berreskuratzea eta etxe-kaleratzeak edota IRPH bezalako jarduerekin amaitzea eta familiek dituzten finantza beharretarako eskaintza eraginkor eta justua eskaintzea.
 - Oro har, herriz herri hedatua egongo den finantza entitatea izatea. Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko etengabeko konpromisoa izango duena, bai langile kopuru eta bitartekoen ikuspuntutik zein zerbitzuaren kalitate edota euskararen erabilpenarengatik ere.
 - Sorreratik hain garrantzitsua izan den gizarte-ekintzarekiko konpromisoak berrestea eta betetzea eta gizarte-ekintzak XXI. mendean bete behar duen papera denon artean berraztertzea eta garatzea.”

Kutxa banku-fundazio batean ez bihurtzeko (Bizkaia eta Araban, banku-fundazio izateari uzteko) eta aipatu helburu horien norabidean arituko diren kutxak eta Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat bermatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak akzioen eskualdatze-prozesu bat proposatu du, hain zuzen ere, izaera publiko eta soziala ahalbideratzen duen aukera erreal, legal eta eraginkor gisa.

Hori guztia kontutan hartuta Usurbilgo Udalak honoko erabakiak hartzen ditu:



Usurbilgo Udala



1.- Usurbilgo Udalak herritarren, familien eta bertako ekonomiaren mesedetan arituko den Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat aldarrikatu nahi du.

2.-Usurbilgo Udalak Kutxaren (GIPUZKOAN) eta Kutxabanken izaera publiko eta soziala bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta erabakiak hartzeko borondate eta prestutasun irmoa du.

3.- Norabide horretan, Usurbilgo Udalak Kutxako (GIPUZKOAN) batzarrari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu duen eskualdatze-prozesu hori martxan jar dezala, Gipuzkoako Kutxa banku-fundazioa bihurtu ez dadin eta herritarren eta bertako instituzioen izaera publiko eta soziala bermatzen jarraitu ahal izateko.

4- Honako mozioa Gipuzkoako Foru Aldundiari, GIPUZKOA KUTXAKO Administrazio Kontseiluari eta Lehendakariari helaraziko zaie.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Aurkako botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

8.2.- PSE-EEK AURKEZTUTAKO MOZIOA: LOREG-AREN ALDAKETARI BURUZKOA, ALKATEAK ZUZENEAN HAUTATZEAREN INGURUAN.

Ricardo Crespok eskatu du EH Bilduk aurkeztu duen mozioa puntuz puntu bozkatzea eta horrela egingo balitz, bere mozioa bertan behera utziko lukeela jakinarazi du.

Alkateak erantzun dio EH Bilduk aurkeztu duen eta gai-zerrendan hurrengo puntuan doan mozioa puntuz puntu bozkatuko dela.

Beraz, mozio hau gai zerrendatik atera egin du.

8.3.- EHBILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ALKATEEN AUKERAKETA ZUZEN-RAKO PROPOSAMENAREN AURREAN.

Alaitz Aizpuruak mozioa irakurri du.

Batzarkideek, mozioa aztertu dute eta puntuz puntu bozkatu dute:



Usurbilgo Udala



“Herritarrengandik gertuena dauden instituzioak izanik, Udalen jarduera ireki, zabal eta demokratikoan sakontzea, eguneroko ariketa izan beharko litzateke. Hauteskundeen aurretik, egunean bertan eta ondoren ere, Udalek herritarren borondatearen ispilu izan behar dute. Aldi berean, gainerako interes partidista, ekonomiko eta finantzieroren gainetik, herritarrenganako zerbitzua eta konpromisoa izango dira etengabe, Udal politika ezaugarrituko duten adierazleak.

Baina gure Udalek aurrekinik gabeko erasoak jaso izan dituzte azken urteetan. Europatik proposatu eta Madriletik inpostu dituzten murrizketen gauzapearen bidez, ahalmen politikoak eta ekonomikoak erabat mugatu zaizkie Udalei, lehendik larria zen egoera, oraindik ere larriago bilakatuz. Madriletik inposatu nahi izan zaizkigun neurri horiek guztiek, udalen autonomia suntsitzeaz gain, Udalen eskuetan dauden baliabideak esku pribatuetara bideratzeko ate guztiak irekitzen saiatu dira. Ereku publikoa eta herritarra ahulduz eta era berean eremu pribatuan mugitzen diren entrepesak indartuz. Azken urteetako udalen jarduera eredu, berez ahula izanik ere, errotik okerrera aldatu nahi izan da Madrilgo Gobernutik.

Behin eta berriz, Hego Euskal Herriko instituzio guztiek, udalen autonomia indartzearen beharra eta udalak herritarrengana gerturatzeko neurriak aldarrikatu arren, Madriletik entzungor egin zaigu eta inposaketarekin erantzun zaigu.

Azken urte hauetan neurri hauek bultzatu eta udalen eskumen politikoak murriztu dituen PP alderdia, alkatearen aukeraketa zuzenerako proposamen batekin datorkigu. Oraindik osotasunean ezagutzen ez baldin ba da ere, alkatea zuzenean zerrendarik bozkatueneko zerrendaburu izendatzeko proposamena jarri da mahaiaren gainean. Udal hauteskundeetarako hilabete gutxi falta diren honetan, nagusiki PP-ren alderdi interesei erantzuten dien proposamen baten aurrean gaude. PP-k ohikoa duen bezala eta beste behin ere, inoren iritzitari kasurik egin gabe (eta bereziki Euskal Herriko udal eta toki erakundeetatik egiten diren aldarrikapenei kasurik egin gabe) ari da urratsak ematen. Bere interes politiko alderdikoi eta zentralistak inposatu nahi ditu gure udaletan, herritarren gehiengoaren iritzia alde batera utzita. Alkatetza eta Udal Gobernuak, herritarren gehiengoaren borondatea ordezkatu behar dute. Alkatearen erreferentzia garrantzitsua da, baina ez eredu presidentzialista baten arduradun gisa, herritarren gehiengoaren ordezkari gisa baizik.

Hauteskunde Legearen aldaketa sakon bat behar dela uste dugu. Baina ez alderdi bataren edo bestearen interesak defendatzeko, baizik eta Euskal Herritarrok gure udal eta instituzio egitura nolakoa izan behar duen erabakitzeko aukera izateko. Gure udaletan demokraziari ateak irekitzeko, jarrera presidentzialista eta autoritarioak alde batetara uzteko eta herritarren hitzak udaletan zuzenean indarra izan dezan. PP-k aurkeztu duen proposamenaren kontrako norabidean egin behar dira aldaketak.

Hau guztia kontuan izanik, Usurbilgo Udalak, honako puntu hauek onartzen ditu:

1.- Udal honek, Madrilgo Gobernutik PP-k alkatea zuzenean zerrendarik bozkatu-
rik zerrendaburua izendatzeko burutu nahi duen Lege Aldaketaren aurkako jarrera
adierazten du. Udal eta herritarren interesen gainetik, PP ren alderdi interesei



Usurbilgo Udala



erantzuten dielako. Norabide horretan, udal honek, interes alderdikoiek sustaturiko Hauteskunde Legearen edozein aldebarreko aldaketa errefusatzeko du.

2.- Udal honek, Euskal Herriko udal eta toki entitateen borondatea errespetatu eta gure egitura instituzionala inposaketa eta murrizketarik gabe, Euskal Herritarren beharren arabera antolatze eskubidea aldarrikatu nahi du.

3.- Udal honek, bere jardueran herritarren partehartzea eta demokrazia zuzenerako tresnak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du, udalaren osaketan ezezik udaleko erabaki garrantzitsuenen aurrean ere.

4.- Udal honek, ebazpen honen berri, herritarrei eta Madrilgo Gobernuari emateko erabakia hartzen du.”

Honela izan da bozketa:

1. puntua aho batez onartu da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

2. puntua gehiengoz onartu da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Aurkako botoa: Ricardo Crespo Rubio.

3. puntua aho batez onartu da:


Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

4. puntua aho batez onartu da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi,



Usurbilgo Udala



Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:35ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.